

X-EVIAN

Undondo Gaztetzeko Zentro Sozial Okupatuak eta Autokudeatuak (ZSOA) bere hacker laborategian ([Metabolik BioHacklab](#)) landutako proiektua da X-Evian. G8 gailurraren aurrean Evian hirian 2003an egin zen gailurrerako makinak ekipatu eta elkarrekin lotzeko beharrak eraginda sortu zen asmoa. Gailurraren kontrakoan parte hartu zutenean, X-Evian egitasmoaren sortzaileek ikusi ahal izan zuten gizarte mugimenduak euskarri teknikoren baten beharrea zeudela, gailurren kontrako ekitaldi handietan sortu ohi diren berriak, bideoak eta jakintza beren kabuz kudeatzeko. Eta, aurrekoaz gain, ikusi ahal izan zuten orduko tresnek ez zutela ordenagailu zaharretan sistema eragile oso bat instalatzeko balio. Arazo horiek guztiak konpontzeko sortu zuten X-Evian sistemaren lehen bertsioa. Sortzaileetako bik beren proiektua aurkeztu zuten Artelekun ospatu ziren 2005eko Copleft jardunaldietan.



Eta, hain zuzen, Artelekun aurkeztu zuten 0.666 bertsioa copyleft ereduaren pentsamoldea eta praktika indartzeko sortu dute. Gai esparru horren inguruan ari direlarik, bertsioak erantsirik duen materialaren bidez ikuspegi ahalik eta zabalena eskaini nahi diote ingurumari horietara lehen aldiz hurbiltzen denari. "Teknikoki, Live-CDa da X-Evian. Sarean bizi diren jakintza libre guztiak daude bertan, pakaturik. Eta, hain zuzen, copyleft horixe berari deitzen zaio, hau da, beste batzuk egin dutena atzera ekarri eta ekoizteari", adierazi zuen Xabier Barandiaranek. Mundu osoko programatzailek egindako lanaren bilketa da CDa, eta software libreari buruz ezagutzarik ez duenak ere arazorik gabe erabiltzeko moduan dago prestatuta. Izan ere, programaren bidez lanean hasteko, aski da Live-CDa barruan dela piztea ordenadorea. Hardwarearen igarle automatiko baten bidez RAM memorian instalatuko da automatikoki eta lanean hasiko da. Metodo horri esker, programa PCren bizkarroi bihurtzen da eta ez du inolako aztarnarik uzten, hau da, ez du disko gogorra aldatzen eta ez die eragiten ez gure berezko sistema eragileari ez lehendik ditugun artxiboak. Horretaz gain, X-Evianek tresna bat du CDaren eduki osoa disko gogorrean instalatzeko, Windows desinstalatu gabe.

X-Evian erabiltzen duenak hainbat tresna aurkituko ditu softwarea sortzeko eta testuak, irudiak eta bideoak editatzeko eta, gainera, hori guztia sareko komunikazio-uhin askeetara eramateko. Arduradunen arabera, "X-Evian lanabes bat da, erabiltzaileari zibernetika-espazioaren barruan koordinada jakin batzuen arabera kokatzen lagunduko diona". Dena den, X-Evian proiektuak gizarte funtzio bat ere izan dezan nahi dute. Izan ere, oinarririk sortu zen, hau da, gizarte mugimenduetatik, eta irabaziak gizartearentzat izan daitezzen nahi da. Beste aldetik, arduradunen asmoa ez da egindako ahaleginaren jomuga bakarria programa-tresna hori izatea, baizik eta beste ekimen batzuen bidez tresna hori gainditu eta beste bide batzuk ere aktibatzea. "Gizartearen xedera jarritako tresna

batzuk dira. Horiei esker, ikaskuntzako eta hezkuntzako prozesu jakin batzuk jar daitezke abian, baina aldi berean bizkarra eman diezaiekegu erakunde, ikastetxe eta enpresa askok gaur egun hartzera behartzen gaituzten gailu teknologikoei. X-Evian sistemako tresnei esker, alafede, zibernetika-espazioan leku bat egin diezaiokegu copylef ereduari, hau da, partekatzeari, merkataritza harremanetan ito gabe”, esanez amaitu zuen Xabier Barandiaranek.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago.

Hemengo testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:

- [gazteleraz](#)
- [ingeleseaz](#)